

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **230/2020 Foru Agindua, urriaren 5ekoa, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuarena, Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena ematen duena**

“Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektua” izapidetzeko, ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuko prozedura egin behar da alde zuzenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 3/98 Legearen I. eranskineko c) apartatuan (“Ingurumen eraginaren ebaluazio erraztuko prozeduraren mende dauden obra edo jarduketaren zerrenda”) jasotako kasuetako bat delako (3.4. azpitatala): lurzatiak biltzeko proiektuak. Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legeak arautzen du prozedura (45, 46, 47 eta 48 artikulua).

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren idazkia sartu zen, erreferentziazko proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuko prozedura izapidetzen hasteko. Idazkiarekin batera, ingurumen dokumentua ere erantsi zen.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunek kontsultak egiteko aldiari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko irailaren 22an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (20/38 espedientea).

#### **1. Lurzatiak biltzeko proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak**

##### 1.1. Lurzatiak biltzeko proiektuaren ezaugarrien laburpena:

Lurzatiak biltzeko planteatutako proiektuak Arratzua-Ubarrundiako udalerrian kokatutako lursailak hartzen ditu nagusiki, nahiz eta azalera txiki bat Gasteizko eta Zigoitiko udalerrietan dagoen.

Bilduko den azalera 113,209 hektarea da, zenbait jaberren 61 lurzatiaren banatuta. Lehorreko zereala (garia eta garagarra) landatzeko erabiltzen diren lurzatiak dira gehienak.


Lehendik dauden bideen trazadura erabiliko da, eta, beraz, ez da izango handitzeko edo mantentze lanak egiteko beharrik. Finken mugak ere ez dira aldatuko.

Lurzatiaren ez da labore aldaketa esanguratsurik aurreikusten.

Lurzatiak biltzeko proiektu honen irizpide orokor gisa, gaur egun dauden zuhaitz edo zuhaixka heskaiak kontserbatuko dira, bai eta lurzatiaren dauden edo lurzatiaren mugakide diren zuhaitz sakabanatuak ere.

##### 1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Lurzatiak biltzeko proiektuaren eremu geografikoak 113,209 hektarea hartzen ditu, 61 parzelatan banatuta, Arratzua-Ubarrundiako, Gasteizko eta Zigoitiko udalerrien barruan, AP-1 errepidearen iparraldean, Buruaga, Mendarozketa, Miñaogutxia eta Ziraoko herrien artean, irudi honetan ikus daitezkeen bezala:



Irudian horiz agertzen da lurzatiak biltzeko proiektuaren eremua

### 1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira: Proiektua gauzatzean dauden aukerak aztertu ahal izateko, irizpide hauek hartu dira kontuan: nekazaritza, abeltzaintza eta ekonomia irizpideak (ustiategien eta komunikazio bideen errentagarritasuna hobetzeko jarduketak kontuan hartuta), ekologia irizpideak (ingurumenean eragin txikia duten edo eragin negatibo edo itzulezinak eragiten ez dituzten jarduketak egiteko) eta gizarte irizpideak (landa ingurunearen despokatzea gerta ez dadin edo nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak utzi ez daitezzen saihesteko).

“0” aukerak, edo ez jardutekoak (ez da aukeratu), lurzati azalera eskasiak eragindako arazoekin jarraitzea ekarriko luke, bai eta haiek kudeatzeko zailtasunak eta ustiategien errentagarritasun faltak eragindako arazoekin ere. Horrek guztiak ustiategi asko bertan behera uztea eta nekazaritza sektoreko enplegua murriztea ekarriko luke, eta horrek batez ere gazteei eragiten die eta landa ingurunean jarraitzen duen biztanleria zahartzea eragiten du.

“1” aukera (aukeratutakoa), azaldukoaren arabera, egokiena da, lurzatiak bilduz gero helburu hauek lortutako iratekeelako:

- Finka guztiak zuzen mugatzea eta bakoitzaren jabetza ezartzea.
- Ustiategien kudeaketa eta bideragarritasuna hobetzea.
- Landa eremuko despokatzea murrizten laguntzea.

**2. Kotsulta fasearen laburpena**

Ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuaren prozedura arautuaren arabera, galdetu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda erakusten da hemen, haietatik zeinek erantzun duen adierazita:

URA – Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Gasteizko Udala	
Arratzua-Ubarrundiako Udala	
Zigoitiko Udala	
Ziraoko Administrazio Batzarra	
Miñaogutxiko Administrazio Batzarra	
Betolatzako Administrazio Batzarra	
Buruagako Administrazio Batzarra	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Jasotako erantzunetan ikusitakoa laburbilduko dugu hemen (ingurumen inpaktuaren txostenean jasotako agirien kopia osoak erantsi dira):

- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten du lurzatiak biltzeko proiektuaren eremua ustezko zona arkeologikoan dagoela (16. zk., Gernika herrixka). Dena den, ondorioztatzen du proiektuak ez duela eraginik izango, baldin eta lurra lantzeko ohiko lanetarako beharrezkoa dena baino sakontasun handiagoa behar duten lanak egiten ez badira.

- URA Uraren Euskal Agentziak txosten bat egin du, eta, bertan, beharrezkotzat jo du proiektuak, sortzen diren katastro plano berrietan, lehendik katastroan irudikatuta dauden errekei eustea, nahiz eta unean-unean zuzendu ahal izango diren egungo errealitate fisikora egokitzeke.

Urak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako txosten bat ere helarazi du. Txosten horretan ondorioztatzen du proiektuan eta IEAn sartu beharko liratekeela ingurune hidrikoan (lurrazalean eta lurpean) izan daitezkeen eraginen azterketa bat; ingurune hidrikoaren kutsadura eta degradazioa saihesteko behar diren prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak, eta ingurumena zaintzeko eta jarraipena egiteko plan bat. Era berean, Nekazaritza Jardunbide Egokien Kodeari jarraitzea gomendatzen du, urak lurpean kutsatzea saihesteko eta eremuko dinamika hidrologikoa ez aldatzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, lurzatiak biltzeko proiektuak ez dakar eragin arkeologikorik.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak dio proiektuak ez diela eragiten historia eta kultura balioa dela-eta babestuta dauden elementu edo higieziinei. Beraz, zerbitzu horren arabera, ez dago eragozpenik proiektua izapidetzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak jakinarazi du jardungo den azaleraren ehuneko 65 baino gehiago onura publikoko mendi gisa katalogatuta dagoela (“Isasi” 665 zenbakiko onura publikoko mendia eta “Ziraobaso” 661 zenbakiko onura publikoko mendia, biak Ziraorenak) Proiektuaren sustatzaileari eskatzen dio eragindako onura publikoko mendietako erakunde titularren (Zirioko kontzejua) eskaera lor dezala, lurzatiak biltzeko prozesuan sartzeko, eta Mendi Zerbitzura bidal dezala. Erakunde titularra bera ardua daiteke zuzenean eskaera egiteaz. Era berean, txostena eskatu beharko dio Mendi Zerbitzuari, eta onura publikoko mendietan eta beste lurzati batzuetan aldatu beharreko azalera zehatzei buruzko memoria baloratua erantsi; horrela, kokaguneak ezabatu edo jabetza publikoaren baldintza fisikoak hobetuko dira, baliorik galdu gabe.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak ohar hauek egin ditu:

1. Bildu nahi diren lurzatiak EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jasota daude, honako kategoria hauetan sailkatuta: “Trantsizioko landa paisaia” eta “Balio estrategiko handia” (laborantza lurzatiak) eta “Basoa-mendi mehatza” / “Basoa” (ezpondak, baso txikiak eta lurzatiaren arteko mugak).

2. Proiektuak “Balio estrategiko handiko” lurzoruei eragiten dien arren, ez da aldaketarik izango horien erabileran, eta, beraz, ez da txostenik egin behar, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruri eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97 bis artikulua ezartzen duen moduan.

3. Kontuan hartuta proiektua gauzatu ondoren ez dela nekazaritza lurzorua galduko eta lurzatiaren ahalmen agrologikoa hobetzea dela helburua, proiektuaren aldeko txostena egin da.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau azaldu du: “Erakunde honek ez dauka aipatutako kokalekuetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin den berririk; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Era berean, hauxe dio: “Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak txostena egin du, eta sustatzaileari eskatu dio proiektua gauzatzean aurreikusten den amaierako egoerari eta proiektua garatzeko baldintzei buruzko datuak zehazteko. Era berean, ezinbestekotzat jo du interes komunitarioko habitatak dituzten eta gaur egun nekazaritzarako erabiltzen ez diren eremuak lurzatiak biltzeko eremutik kanpo uztea.

### **3. Ebaluazio prozesuaren analisisa. 21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideen azterketa**

Alde batetik, proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ingurumen organo honek uste du egindako ingurumen dokumentuak kalitate nahikoa duela txosten honen xede den Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa erraztua egiteko. Dokumentazio horrek proiektuaren eremuaren lurralde diagnostiko bat egiten du, eta obra gauzatzeak fase desberdinetan eragin nabarmena izan dezakeen inguruneko elementu bakoitza deskribatzen du. Hona hemen, aurkeztutako dokumentazioaren 6. atalean ("Proiektuak eragindako ingurumen alderdiak") bereizi diren eremuko ingurumen faktoreen eta elementuen zerrenda:

6.1 Ingurune fisikoa (edafologia eta geomorfologia, hidrologia eta hidrogeologia eta klimatologia).

6.2 Ingurune biotikoa (landaredia eta fauna).

6.3 Naturagune babestuak (EAEko Naturagune Babestuen Sarea, Natura 2000 Sarea, Bataunaren Intereseko Habitatak).

6.4 Ingurune sozioekonomikoa (demografia eta azpiegiturak).

6.5 Arkeologia eta kultura ondarea.

Ingurumen inpaktuak ebaluatzeko eta bereizteko erabilitako metodologia zuzentzat jotzen da. Lehenik eta behin, obretatik eratorritako inpaktu faktoreak behar bezala detektatu dira. Bigarrenik, kaltetu daitezkeen inguruneko elementuak errealitatearekin bat etorri eta proportzionalki deskribatu dira. Azkenik, inpaktuen deskribapena, karakterizazioa eta kalifikazioa Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera egin da.

Adierazi behar da, jarduketaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez dela aurreikusten proiektuak istripu larriak edo hondamendiak gertatzeko duen kalteberatasunaren ondoriozko ondorioak, eta, horregatik, ez dela beharrezkoa 45. artikuluko f) apartatua aplikatzea proiektuari.

Horregatik guztiagatik, egokitzen eta proportzionatuz jotzen dira ingurumen dokumentuan jasotako ondorioak, zehazki 7. atalean ("Proiektuak ingurumenean izan ditzakeen ondorioen deskribapena eta ebaluazioa").


Bestalde, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikuluen 5. apartatua eta III. eranskinean jasotako estipulazioei jarraikiz, proiektuaren ezaugarriak, kokapena eta balizko inpaktuaren ezaugarriak aztertu ondoren, ez da beharrezkotzat jotzen Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea.

### **4. Ingurumen ondorio nagusiak**

Lurzatiak biltzearen ingurumen inpaktu nagusiak honako hauetan gerta litezke: habitatei buruzko zuzentarauan jasotako enklabeetan, erreken eta sare hidrografikoko azaleko uren landaredi naturalean, laborantza finken mugakide diren sastrakadi larreetako eremuetan eta, oro har, zuhaitz eta zuhaixka landaredian (zuhaitzietan edo jarduketa eremuko laborantza lursailentan kokatuak).

Hurrengo irudian jasotzen den bezala, lurzatiak bildu beharreko eremuan, "Habitatatak" 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera babestu beharreko baso eta zuhaixka batzuk daude. Erkameztiak eta txilardiak dira gehienak, Batasunaren Intereseko Habitatak (BIH) dira, eta 9240 eta 4090 kodeak dituzte, hurrenez hurren. Era berean, *Brachypodium pinnatum* espeziea (Batasunaren Intereseko Lehentasunezko Habitat gisa identifikatua 6210 kodearekin) duten larre mesofiloek okupatutako eremuak sartu dira. Enklabe horiek, laborantza finkak mugatzen dituzten sastrakadi larreen eremuekin batera, balio bereziko elementuak dira inguruan bizi diren espezieen sakabanaketarako, eta horregatik, zorrotz errespetatu behar da haien osotasuna.





Landarediaren eta faunaren gaineko balizko eraginak xehetasunez eta modu egokian aztertuta ingurumen dokumentuan, eta uste da ingurumen dokumentuan eta txosten honen hurrengo atalean jasotako prebentzio eta zuzenketa neurriak nahikoak direla “Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektua” eta BIHen babes bateragarriak direla bermatzeko. Hauek dira ingurumen dokumentuan horretarako jasotzen diren funtsezko neurriak:

- “Bide sarea eta finken mugak ez dira aldatuko”.
- “Gaur egun dauden zuhaitz edo zuhaixka heskaiak kontserbatuko dira, bai eta lurzatieta dauden edo lurzatieta mugakide diren zuhaitz sakabanatuak ere”.

Lurzatiak biltzeko eremuan, garrantzi txikiko hainbat erreka daude, udan lehor geratzen direnak. Ibaiertzetako landareak funtsezko elementuak dira landa espezieak horietan babesten baitira, eta, beraz, babestu egin behar dira. Lurzatiak biltzeko eremuan dauden erreken ondoan dagoen landaredia orlan, espezie hauek daude, besteak beste: zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) edo intsusa beltza (*Sambucus nigra*). Ingurumen dokumentuak adierazten du ez dela lur mugimendurik egingo eta ez dela aldaketa topografikorik aurreikusten; beraz, ondorioztatzen da ez dela eraginik izango erreketan.

Laborantza finken mugakide diren sastrakadi larreak dira formazio helduagoen (adibidez, erkameztiak) segidaren lehen etapak. Lurzatiak biltzeko eremuan, laboreek utzitako espazioak okupatzen dituzten belar espezieekin (albitziak) nahastutako txilarrak eta ipuruak daude. Eremu horietan kontserbazio zorrotzari eman behar zaio lehentasuna, eremuko espezie hostotsuen pixkanakako kolonizazioa ahalbidetzeko.

Era berean, lurzatiak biltzeko berezko jarduketetatik babestu beharreko elementutzat hartzen dira lurzatieta arteko zuhaitz eta zuhaixka heskaiak, bai eta lurzatieta sakabanatutako edo lurzatieta mugakide diren zuhaitzak ere. Elementu horiek, beste espazio batzuekiko lotune gisa jarduten dutelako faunarentzat oso garrantzitsuak izateaz gain, kolore kontrastea, forma aniztasuna eta, azken batean, dibertsitatea ematen diote inguruko nekazaritza eta abeltzaintza paisaiari. Sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuak egoki adierazten du lurzatiak biltzearen ondorioz sortzen diren finketan elementu horiek gorde beharko direla.

Aipatutako landarediari lotuta, eta laborantzako lurren mugakide, pinugorri unada batzuk daude, erkameztiekin nahastuta. Jarduketa eremuaren barruan fauna babesteko azalera handiena duten eremuak dira baso natural horiek. Horrenbestez, lurzatiak biltzearen ondorioz sortzen diren finketarako ingurumen baldintza da baso masa horiek kontserbatzea.

Nabarmentzekoa da, halaber, Bizikleta Bideen eta Ibilbide berdeen LPSaren hasierako onepenean sartutako IV-47 Betolatza-Buruaga ibilbide berdea jarduketa eremuan dagoela. Buruaga, Zirao eta Betolatza herriak linealki lotuko dituen ibilbide lineala da, eta lehendik dagoen bide asfaltatu batetik igaroko da. Horrenbestez, lurzatiak biltzeko proiektuak ez dio eragingo.

Azkenik, adierazi behar da ez zaiola eragiten Natura 2000 Sareko ezein guneri.

##### **5. Neurri babesle eta zuzentzaileak**

Ingurumen dokumentuaren 8. atalean, proiektua ingurumenean integratzeko zenbait neurri jasotzen dira, oro har zuzentzat jotzen direnak. Beraz, neurri horiek deskribatzen diren baldintzetan aplikatu behar dira. Hala ere, jarraian, deskribatutako eraginpeko eremuan ingurumen inpaktu negatiboak saihesteko eta/edo minimizatzeko hartu behar diren neurri osagarriak jasotzen dira, baita ingurumen dokumentuan jasotako neurri batzuen birdefinizioa ere.

A) Txosten honetan aipatzen diren ingurumen sentikortasuneko eremuak babestu egin beharko dira lur mugimenduen edo lurzatiak biltzearen edo horren ondorioz egin beharreko ondorengo berrantolaketa lanen ondorioz egin beharreko edozein jarduketaren aurrean. Txosten honen ondorioetarako, ingurumen sentikortasuneko eremu eta babes zorrotzeko eremu izango dira honako hauek:

– 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinaren arabera Batasunaren interesekotzat eta Batasunaren lehentasunezko interesekotzat katalogatutako habitatak.

– Erreketako eta sare hidrografikoko hustubideetako landaredia naturala.

– Inguruko pinugorrien eta erkameztien baso naturalak.

– Landaredia hostotsu naturala, soroak inguratzen dituena edo nekazaritza lurzatiaren artean zuhaitziak edo lekuneak eratzen dituena.

– Laborantza finken mugakide diren sastrakadi larreak.

– Lurzatiaren arteko zuhaitz eta zuhaixka heskaiak eta laborantzako lursailen artean sakabatatutako zuhaitzak.

B) Lursail berrien geometria lehendik zeuden landare elementuetara egokitu beharko da, elementu horiek lursailen arteko mugak definitzeko funtzioa izan dezaten. Finken mugak, halaber, inguruko topografiara eta ezaugarri naturaletara egokitzeko ahalegina egin beharko da, lur mugimenduak eta landare egituraren haustura saihestuz.

C) Jabeekiko konpromisoak eta akordioak bultzatu beharko dira, elementu naturalak mantendu eta errespetatu dituzten, duten ingurumen balioagatik. Alde horretatik, jabetzaren berrantolaketak kontuan hartu beharko ditu txosten honetan jasotako babestu beharreko elementu naturalak, lurren sailkapenak jabe berari itzul diezazkion, ahal den neurrian, babestu beharreko eremuak.

D) Zuhaixka eta baso eremuetako proiektuko jarduketak erregistro aldaketetara mugatu behar dira, baina ez da onartuko baso erabileratik nekazaritza erabilerara aldatzea. Nolanahi ere, jabeek baso edo zuhaixka erabileratik nekazaritza erabilerara aldatzeko eskatzen badute, ingurumen ondorioetarako txostena egin beharko da, eta Ingurumen Organo honek baimena eman beharko du aldaketa hori egiteko.

E) Sustatzailea Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko da, behar izanez gero, 665 zenbakiko ("Isasi") eta 661 zenbakiko ("Ziraobaso") onura publikoko mendiei eragin diezaieketen kasuan kasuko baimenak eta baldintzak jasotzeko.

F) Lurzatiak biltzeko proiektua onetsi aurretik, sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko da, Gernika herrixka ustezko zona arkeologikoan (16. fitxa) izan daitekeen eragina zehazteko, eta zuzendaritza horrek ezartzen dituen baldintzak beteko dituela ziurtatzeko.

G) Ez da zerbitzu eremurik, makina parkerik eta produktu kutsatzaileak biltegitratzeko gunerik ezarriko txosten honen arabera ingurumen sentikortasuneko eremuak direnetan.

#### **6. Zaintza eta jarraipena**

Ingurumenaren jarraipenerako programari buruzko ingurumen dokumentuaren 9.2 atalean planteatzen den bezala, komenigarritzat jotzen da ingurumenaren jarraipena egitea. Jarraipen hori modu koordinatuan egingo dute Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak eta Foru Aldundi honetako Ingurumen Jasangarritasunerako Zerbitzuak, lurzatiak biltzeko proiektua onetsi aurreko faseetan eta eraikuntza fasean, aplikatutako neurri zuzentzaileen eta ingurumena lehengoratzeko neurrien berri izateko, eta, horrela, horien eraginkortasuna ebaluatzeko eta antzeman daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Horregatik guztiagatik, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

#### **XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Ziraoko lurzatiak biltzeko proiektuaren ingurumen inpaktuari buruzko txostena ematea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betez, ingurumen inpaktuaren txostena ingurumen adierazpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuari buruzko txosten hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 5a

*Ingurumen eta Hirigintza diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*